

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**LEHENDAKARITZA**

**PRESIDENCIA**

Azterlan eta Lege Araubide  
Zuzendaritza  
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Dirección de Estudios y  
Régimen Jurídico  
Gabinete de Prospección Sociológica

# **EUSKAL SOZIOMETROA 20**

**2002ko abendua**



[http://www1.euskadi.net/estudios\\_sociologicos](http://www1.euskadi.net/estudios_sociologicos)

## Aurkibidea

<b>SARRERA</b> .....	<b>1</b>	• Botoa emateko arrazoiak .....	39
<b>FITXA TEKNIKOA</b> .....	<b>10</b>	• Buruzagi politikoen balorazioa .....	40
<b>A – GAIA: NAZIOARTEKO GATAZKAK</b> .....	<b>12</b>	• Indarkeriaren erabilpena arazo politikoak konpontzeko.....	42
• Iraken aurkako eraso.....	13	• Bide demokratikoen izatea.....	43
• Espainiaren partehartzea Iraken aurkako erasoan .....	14	• Instituzioekiko konfiantza .....	45
• Mundua irailaren 11ren ondoren .....	16	<b>C – EGOERAREN BALORAZIOA</b> .....	<b>48</b>
• AEB eta nazioarteko gatazkak .....	18	• Egoera orokorraren pertzepzioa .....	49
• Biztanleriaren beldurrak .....	20	• Demokraziaren funtzionamendua EAEn .....	50
• Telebista kateekiko konfiantza.....	22	• Demokraziaren funtzionamendua Estatu Espainolean .....	51
<b>B – JARRERA POLITIKOAK</b> .....	<b>23</b>	• Euskal autonomiaren etendura .....	52
• Politikarekiko interesa .....	24	• Biztanleriaren itxaropena bakearekiko .....	53
• Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna .....	26	• Administrazioarekiko poztasuna .....	54
• Ezker-eskuin ardatza.....	28		
• Euskal Herriko-Espainiako ardatza .....	30		
• Sentimendu nazionalista .....	32		
• Independentismoa.....	34		
• Autonomia Estatutua .....	36		
• Botoemaleen poztasuna.....	37		
• Abstentziorako arrazoiak.....	38		

# Sarrera

## Helburuak

Txosten hau Euskal Soziometroaren 20.a da, 2002ko hirugarren alea, eta **euskal errealitate sozialaren argazki** bat osatzen du.

Helburua euskal hiritarrak nolakoak garen ezagutzea ez ezik, nola bilakatzen ari garen eta Estatuko eta Europar Batasuneko gainerako herrialdeetako biztanleekiko antzerakotasun eta desberdintasunak ikustea ere bada. **Ikuspegi deskribatzaile, ebolutibo eta konparatzaile** horrek bideratuko ditu datozen orriak.

## Fidagarritasuna eta baliotasuna

Aztertutako datuen fidagarritasuna eta baliotasuna bost baliabide metodologiko erabiliz bermatu da:

- EAErako eta hiru Lurralde Historikoetarako ere **adierazgarritasun handiko laginaren** erabilpena.
- Hainbat galderen **estandarizazioa**, bai estatu mailan eta baita nazioartean ere legitimitate zientifiko ziurtatua duten beste ikerketa batzuetan erabilitakoekin.
- Elkarriketatu bakoitzari buruzko informazioa aberastea, bere bizilekuari dagokion testuinguruari buruzko **informazio metatuarekin**.
- Inkestaren azken emaitzen eta argitaratutako beste **kanpo erreferentzia objektibo** batzuen arteko desberdintasunen **ebaluazioa**, azken hau beti ere, datu alderagarriak dauden kasuetan. Zehatzago, ondoko aldagaiei buruz ari gara: Batetik 2001eko Hauteskunde Autonomikoetako botoaren banaketa erreala eta bestetik adina, sexua, ikasketa maila, lan egoera eta euskararen ezagutza mailari buruzko datu ofizial errealak. Datuen parekotasuna EAEn ez ezik lurralde bakoitzean ere egiaztatu da.

- Inkestako datuen **segmentazio soziodemografikoak eta jarreari buruzkoak**, talde sozialen arteko desberdintasun adierazgarrien arabera.

## Datuen egitura eta aurkezpena

Txosten honen egitura eta aurkezpen estetikoak “informazio blokeak” deiturikoetan oinarritzen dira, “diskurtso lineal” klasikoaren aurrean. Izan ere, txostenaren muina orrialdeka eskaintzen da: arlo bakoitzaren barnean zenbait adierazle soziologiko bateratzen dira eta adierazle soziologiko bakoitzak informazio bloke bat osatzen du, gehienez hiru orrialde hartuz:

- Guztira: adierazle soziologikoaren guztirako emaitzak eta –ahal denean– aurreko beste ikerketa batzuekiko konparaketa. Batzuetan konparaketa geografikoa ere egiten da.
- Taldeka: biztanleriaren erantzun orokorren segmentazioa, adierazle soziologiko bakoitzean desberdintasun handienak azaltzen dituzten taldeen arabera, desberdintasun horiek adierazgarriak direnean.
- Konparaketa geografikoa: beste herrialde batzuetan egin diren ikerketetako datuekiko konparaketa.

**Orrialde bakoitzean** datu taula bat, komentario deskribatzaile labur batzuk eta, batzuetan, grafiko argigarri bat aurkezten dira.

Taula batzuen behealdean indize orokor bat agertzen da, balore bakar batean adierazlearen informaziorik garrantzitsuena neurtzen duena. Indize hauetariko batzuk, galdera bati emandako erantzun kategorien arteko kenketa dira soilik (adib.: *poztasun balantzeta*, administrazioko erakunde bakoitzarekin *pozik* daudenen eta *pozik ez* daudenen arteko kenketa da). Indize hauek abantaila bat dute: Alderatutako taldeetako ed/ee kopuru desberdina neutralizatzen dute.

## Galak

Gure azterketaren benetako helburua osatzen dute eta **taulen errenkadetan** azaltzen diren galderetan gauzatzen dira:

- A – GAIA: NAZIOARTEKO GATAZKAK

- **Iraken aurkako erasoak:** AEBn eta beren aliatuen Iraken aurkako erasoaren aldeotasun edo kontrakotasuna.
- **Espainiaren partehartzea Iraken aurkako erasoan:** Iraken aurkako erasoak gertatuko balitz, Estatu Espainolean zenbait neurri hartzearen (tropen bidalketa, base militarrek uztea, giza laguntza, informazioaren zentsura eta askatasunen murrizketa) aldeotasun edo kontrakotasuna.
- **Mundua irailaren 11ren ondoren:** Irailaren 11ren aurretik baino mundu hobean, berdinean edo txarragoan egoteari buruzko iritzia.
- **AEB eta nazioarteko gatazkak:** azken hamar urteotan, nazioarteko hainbat gatazkatan esku hartu ondoren, AEBk ekonomia globalean eta giza eskubideetan izan duten eragina positiboa ala negatiboa izan den.
- **Biztanleriaren beldurrak:** Zenbait gai eta hondamendi posiblek beldurra sortzen duten ala ez.
- **Telebista kateekiko konfiantza:** Nazioarteko informazio zehatza eskuratzeko konfiantza handiena ematen duen telebista katea.

- B - JARRERA POLITIKOAK

- **Politikarekiko interesa:** Politikari buruz adierazitako interes maila.
- **Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna:** Biztanleriak alderdi politikoren batekiko sentitzen duen hurbiltasun maila.
- **Ezker-eskuin ardatza:** Norberaren kokapena *ezker muturra* eta *eskuin muturraren* arteko eskalan.
- **Euskal Herriko-Espainiako ardatza:** Norberaren kokapena *Euskal Herrikoa bakarrik* eta *Espainiako bakarrik* muturren arteko eskalan.
- **Sentimendu nazionalista:** Norberak bere burua euskal nazionalistatzat edo ez nazionalistatzat izatea.
- **Independentismoa:** Euskal Herriaren independentziarekiko adostasun edo desadostasun maila.
- **Autonomia Estatutua:** Indarrengo Autonomia Estatutuarekiko poztasun maila.
- **Botoemateen poztasun maila:** 2001eko maiatzeko hauteskunde autonomikoetan botoa emandako alderdiarekiko poztasun maila.
- **Abstentziorako arrazoiak:** 2001eko maiatzeko hauteskunde autonomikoetan botoa eman ez izanaren arrazoiak.
- **Botoa emateko arrazoiak:** Balizko hauteskunde autonomiko batzuetan botoa ematera bultzatuko luketen arrazoiak.
- **Buruzagi politikoen balorazioa:** Politikari nagusien balorazioa 0tik 10era.
- **Indarkeriaren erabilpena arazo politikoak konpontzeko:** Euskal Herrian arazo politikoak konpontzeko indarkeria erabiltzeko beharra edo beharrik eza.
- **Bide demokratikoen izatea:** Gure demokrazian arazo politikoak konpontzeko bide demokratikoak izatea ala ez izatea.

- **Instituzioekiko konfiantza:** Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, alderdi politikoak, Eliza, Ejertzitza, justizia, sindikatuak, NBE, GKE, enpresak eta komunikabideekiko konfiantza izateko edo ez izateko joera.
- C - EGOERAREN BALORAZIOA
  - **Egoera orokorraren pertzepzioa:** EAEko egoera politiko, sozial eta ekonomikoari buruzko iritzia.
  - **Demokraziaren funtzionamendua EAEn:** EAEn demokraziak duen funtzionamenduarekiko poztasun maila.
  - **Demokraziaren funtzionamendua Estatuan:** Estatu Espainolean demokraziak duen funtzionamenduarekiko poztasun maila.
  - **Euskal autonomiaren etendura:** Euskal autonomiaren balizko etendura batek izango lituzkeen ondorioak.
  - **Biztanleriaren bakearekiko itxaropena:** Euskal Herrian datozen urteetan bakea finkatzearen inguruko itxaropena izatea edo ez izatea.
  - **Administrazioarekiko poztasuna:** Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernua eta Batzorde Europarrarekiko poztasuna.

## Segmentazio aldagaiak

Jararren eta aldagai soziodemografikoen arabera segmentaziorako faktoreak ere badaude, hots, inkestako gizarte taldeak bereizten dituzten galderak eta **taulen zutabeetan** agertzen direnak (kurtsiban agertzen

direnak sortutako azpitaldeak dira), dagokion adierazle soziologikoan desberdintasun adierazgarriak sortzen dituztenean.<sup>1</sup>

- Lurraldeak: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa*.
- Sexua: *Gizonezkoa eta emakumezkoa*.
- Adin taldea: *18-29, 30-45, 46-64 eta >=65*.
- Udalerrriaren tamaina: *Txikia (<10.000 biztanle), ertaina (10.000-120.000 biztanle) eta hiriburua (>120.000 biztanle: Vitoria-Gasteiz, Bilbao eta Donostia-San Sebastián)*.
- Jatorria: *Etorkina* (Euskal Autonomia Erkidegotik eta Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo jaiotakoa), *bertakoa familia etorkina* (EAEn edo NFKn jaioa aita eta ama etorkinak), *bertakoa familia mistoa* (EAEn edo NFKn jaioa aita edo ama etorkina) eta *bertakoa familia bertakoa* (bai bera baita ama eta aita ere EAEn edo NFKn jaioak).
- Ikasketa maila: *lehen mailakoak baino baxuagoak, lehen mailakoak, bigarren mailakoak, goimailakoak*.
- Lanbide nagusia: *Lanean, langabezia, etxeko lanak, ikaslea eta jubilatua*.
- Norberak hautemandako klase soziala: *baxua* (erdiko-baxua edo langilea), *erdikoa* eta *altua* (erdiko-altua edo aberatsa).
- Euskararen ezagutza: *Ez* (ez daki batere hitz egiten), *pixka* bat (hitz batzuk dakizki edo pixka bat hitz egin dezake) eta *bai* (nahikoa ongi edo ongi hitz egiten daki).
- Euskal Herriko-Espainiako ardatza: *Batez ere Euskal Herrikoa* (Euskal Herrikoa bakarrik + Euskal Herrikoa Espainiako baina gehiago), *Euskal Herrikoa bezain Espainiako* eta *Batez ere Espainiako* (Espainiako Euskal Herrikoa baina gehiago + Espainiako bakarrik).

<sup>1</sup> Boto adierazlea ez da azterketa honetan erabili, indar politiko guztien boto asmoari buruzko informaziorik ez edukitzeagatik.

- Politikarekiko interesa: *Batere interesik ez, ez interes handirik, nolabaiteko interesa, interes handia.*
- Ezker-eskuin ardatza: *ezkerrekoa* (ezker muturrekoa + ezkerrekoa + zentro ezkerrekoa), *zentrokoa*, *eskuinekoa* (eskuin muturrekoa + eskuinekoa + zentro eskuinekoa) eta *ed/ee*.
- Euskal nazionalismo sentimendua: *Bai, ez eta ed/ee.*

### **Txostenaren egitura**

Aurkezpen honen ondoren, emaitzen laburpen bat eta ikerketaren fitxa teknikoa agertzen dira eta ondoren lehen aipaturiko eduki arlo bakoitza. Azkenik, bibliografia osagarria eskaintzen da, inkestan erabilitako galdera batzuen jatorria ezagutzeko interesa duen irakurlearentzat.

## **Laburpena**



## Atalez atal

### ¿ZEIN IRITZI DAGO EAE-N ESTATU BATUEN IRAKEN AURKAKO BALIZKO ERASOAREN AURREAN?

EAEko gizartea ez dago Estatu Batuek (AEBk) eta beren aliatuek Iraken aurka eraso egitearen alde (%88) eta gertatuko balitz, *gatazka horren ondorioak jasango lituzkeen jendearentzat laguntza humanitarioa gehitzearen alde* dago (%80) eta aldiz ondokoen **kontra**: *AEBn eta beren aliatuen ejertzitoekin batera borrokatzeko tropak bidali* (%88), *Espainiako base militarrek AEBn eta beren aliatuen eskura jarri* (%86), *komunikabideek ematen duten informazioa zentsuratu eta mugatu* (%83) eta *jendearen libertate batzuk murriztu terroristen kontra egiteko* (%74).

EAEko biztanleriaren ustez, **AEBk** nazioarteko gatazketan izandako eskuhartzea eta horren eragina *negatiboa* izan da, bai munduko ekonomiarentzat (%67) baita giza eskubideentzat ere (%71).

Biztanleriaren erdiak (%47) uste du irailaren 11an AEBn izandako atentatuen aurretik baino mundu txarragoan bizi garela eta ia beste erdiak (%45) mundu berdinean bizi garela. Gutxiengo batek bakarrik (%2) uste du orain mundu hobean bizi garela.

Nazioarteko gatazkekin lotutako eta jendeak beldurgarritzat jo ohi dituen zortzi gai aurkeztuta, EAEko biztanleriak beldurra eragiten diotela aitortzen du, gehien bat hondamen masiboko armak ugaritzeari (%79) eta gutxienik izurriteei (%64). Beldurra handiagoa da emakumeen artean, adinean aurrera egin ahala eta klase baxuenekoen artean.

Nazioartean gertatzen denari buruzko irudi zehatza eskuratzeko, EAEko biztanleriari konfiantza handiena eragiten dion telebista katea *ETB2* (%32) da. Ondoren datoz *TVE1* (%16) eta *Tele 5* (%15).

### ¿ZEIN JARRERA POLITIKO AZALTZEN DITU EAE-KO BIZTANLERIAK?

Politikarekiko interesa du %38k, baina alderdi politikoez hurbiltasuna askoz ere baxuagoa da, %17. Halaber, buruzagi politikoen artean Ibarretxe **Lehendakariak** bakarrik eskuratzen du balorazio positiboa (5.0), gainerakoak 4 punturen azpitik daudelarik.

Ezkertiarrak (%44) askoz gehiago dira eskuindarrak baino (%8) eta gehienbat Euskal Herrikoak sentitzen direnak (%47) gehiago dira beren burua Euskal Herrikoa bezain Espainiakotzat dutenak (%36) eta gehienbat Espainiakotzat dutenak (%11) baino. **Independentziarekin** ados dago %25, desados agertzen da %34 eta %32 *egoeraren arabera ados edo kontra* egongo litzateke.

### ¿ZER IRITZI DUTE MARKO POLITIKOAZ?

EAEko biztanleen gehiengoak konfiantza du Eusko Jaurlaritzarengan (%64) eta Eusko Legebiltzarrarengan (%61), baina ez komunikabideengan (%40), justiziarengan (%37), elizarengan (%36), alderdi politikoengan (%24) eta Ejertzitoarengan (%18).

Gaur egungo Autonomia Estatutuarekin pozik dago EAEko lau biztanletatik bat (%24), eta gehiago dira, %36, *osatuko balitz* pozik egongo liratekeenak. %15ek ez du Autonomia Estatutua onartzen, *ez delako nahikoa, eskasa delako* eta beste %22k ez daki edo ez du erantzuten.

Indarkeriaren inguruan, %86k dio *gaur egun Euskal Herrian biolentzia ez dela beharrezkoa arazo politikoak konpontzeko* eta %77k uste du *gurea bezalako demokrazia batean nahikoa bide dagoela arazo politikoak*

*konpontzeko*. Hala ere, azken gai horri dagokionez, gizarte sektore batzuetan bost pertsonatik bat desados dago, ez du uste nahikoa bide demokratiko dagoenik. Hala gertatzen da adibidez gazteenen artean (%19).

### **EMANDAKO BOTOAREKIKO POZTASUNA. BOTORIK EZ EMATEKO ARRAZOIAK. BOTOA EMATEKO ARRAZOIAK**

**2001eko maiatzeko hauteskunde autonomikoetako** botoemaleen %61 *pozik* dago botoa emandako alderdiarekin eta %14 *ez dago pozik*, beraz poztasun balantzea 47koa da. Euskal nazionalisten artean handiagoa da poztasun maila (%71 *pozik* eta %19 *ez pozik*) ez nazionalisten artean baino (%52 *pozik* eta %28 *ez pozik*).

2001eko maiatzeko hauteskunde autonomikoetan nahi izan ez zutelako botoa eman ez zutenek bi arrazoi nagusi izan zituzten: *politikariekin desengainatua egotea, haiekiko konfiantzarik ez izatea* (%57) eta *alderdi bakar bat ere gustokoa ez izatea* (%56). Lautik batek (%24) ez zuen botorik eman *ez zekielako zeini eman*.

Botoa batzuetan edo inoiz ematen ez dutenen %50ek dio botoa emango lukeela *biolentziaren konponbidea elkarrizketa bidez bultzatzeko*, %38k *bere gustoko alderdi bat sortuko balitz* eta %34k *ETAren kontrako borroka antiterroristarekin adostasuna adierazteko*.

### **¿NOLA PERTZIBITZEN DA EGOERA?**

EAEko biztanleen ustez egoera ekonomikoa ona da (%60 *oso ona+ona*), egoera soziala erdipurdikoa (%45 *oso ona+ona*) eta egoera politikoa txarra (%14 *oso ona+ona*). Gehiengoak ez du uste autonomiaren balizko etendura batek lagunduko lukeenik *bakea lortzen* (%89), *Euskadiko gatazka konpontzen* (%88), *tentsio sozial eta politikoa baretzen* (%86), *elkarbizitza hobetzen* (%86), ez eta *bizitzaren kalitatea hobetzen* ere (%84).

%59k datozen urteetan Euskal Herrian **bakea** finkatuko den itxaropena dauka eta %35ek ez dauka.

Hamarretik sei ez daude **pozik demokraziaren** funtzionamenduarekin, ez EAEn (%61) ezta Estatu Espainolean ere (%62).

%68 *pozik* dago bere Udalarekin, %67 bere Foru Aldundiarekin, %63 Eusko Jaurlaritzarekin, %36 Espainiako Gobernuarekin eta %41 Europako Gobernuarekin.

### **Beste esparru geografiko batzuekiko**

AEBetako atentatuen ondorengo munduaren ikuspegia negatiboagoa da EAEn Estatu Espainolean baino; EAEko biztanleen %47ren ustez mundu txarragoan bizi gara eta **Estatu Espainiarreko** biztanleen %21ek du iritzi hori bera.

Azken hamar urteotan AEBk nazioarteko gatazketan izan duten esku-hartzea eta munduko ekonomian eta giza eskubideetan izan duten eragina epaitzerakoan ere EAEko biztanleak bereziki kritikoak dira. Aitzitik, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Portugal eta Alemania bezalako **herrialde europarretan**, oso neurri desberdinetan bada ere, iritzi hedatuena bi gaietan AEBren esku-hartzea positiboki baloratzen duena da. Ildo horretatik, aztertutako herrialde europearren artean Estatu Espainolean bakarrik aldatzen da iritzi hori, bereziki giza eskubideei buruz ari garelarik, esku-hartze amerikarra negatiboki epaitzen dutenak gehiago direlarik (%49).

Nazioarteko gatazka baten ondorio posibleek (*gerra mundiala, zentral nuklearraren istripua, hondamen masiboko armak ugaritzea, izurriteak*, e.a.) beldurra sortzen diete bai EAEko, bai EBeko eta baita Estatu Espainoleko biztanleei ere. Alderik handiena *terrorismoari* dagokionean gertatzen da, askoz ere jende gehiagori sortzen dio beldurra EBean (%86) eta Estatu

Espainolean (%90) EAEn baino (%69). Estatu Espainolean, kasu guztietan beldur handiagoa du jendeak EAEn edo EBean baino.

EAEn EBean baino konfiantza handiagoa dago Gobernuarengan (Eusko Jaurlaritza) eta (Eusko) Legebiltzarrarengan, GKEengan eta, alde txikiagoarekin, alderdi politikoengan. Eta europearrek baino konfiantza txikiagoa dute justiziarengan, Nazio Batuengan eta Elizarengan. Alderik handienak Ejertzitoari buruzko balorazioan gertatzen dira, Europan %66ko konfiantza maila duelarik eta EAEn %18koa.

### Aurreko urteekiko

Politikarekiko interesa, alderdi politikoekiko hurbiltasuna eta ezkertiaritasuna mailarik altuenetan daude, iagoera nabarmenik gertatu ez bada ere.

Euskal Herriaren independentziari buruzko adostasuna eta ezadostasuna maila berean hazten ari dira, azken bi urteotan antzerako independentismo balantzea dagoelarik.

Ibarretxe Lehendakariak hobekien baloratutako buruzagia izaten jarraitzen du, 5.4tik 5.0ra igaro delarik, eta 2000n lortutako baloreen antzerakoetan kokatuz. Buruzagi guztiak iaz baino okerrago baloratu dira, bereziki Mayor Oreja.

2002ko hasieran instituzio guztiekiko konfiantza maila asko jaitsi zen. Orain Eusko Legebiltzarra eta alderdi politikoak lehenago maila berreskuratzen ari dira baina gainerakoetan –GKEak, Sindikatuak, Justizia, Eliza, Nazio Batuak eta Ejertzitoa- antzera mantentzen da. Justiziarekiko konfiantzak behera egiten jarraitzen du 2002an (%37), 1999arekin alderatuz (%44), eta Elizak ere sinesgarritasuna galdu du 99tik (%51), 2002ko otsailera (%41) eta urrira (%36).

Administrazioarekiko poztasunari dagokionean, Eusko Jaurlaritzaren balorazioa pixka bat jaitsi bada ere, 80ko hamarkadatik momenturik onenetako batean dago, eta baita Espainiako Gobernuarenean ere.

### Azken batean

EAEko biztanleak Iraken aurkako **erasoaren kontra** daude eta baita AEBri laguntza logistikoa eta militarra ematearen kontra ere. Askatasunen murrizketa eta informazioaren zentsura ere ez dira onartzen.

Biztanleria bere konstante politikoetan mantentzen da, aldaketa handirik gabe, **demokraziaren** fiuntzionamenduarekiko poztasunik eza garbi azaltzen badu ere. Zentzu horretan EAEko egoera politikoa txartzat jotzen da eta egoera soziala hala-nolakotzat.

EAEko egoera ekonomikoa berriz ona da biztanleen ustez eta jende gehienak **konfiantza** du eta pozik dago instituzio politiko nagusiekin, hala nola Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Eusko Legebiltzarrarekin. Lehendakaria da biztanleek “nahikoa” nota emandako buruzagi bakarra.

## **Fitxa teknikoa**

Informazio bilketa 2002ko urriaren 3a eta 20a bitartean egin zen –biak barne- galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetarako lagin adierazgarri bati etxean egindako banakako elkarrizketen bidez.

Lagina, 18 urte edo gehiagoko biztanleriari zuzendua, honela banatu zen: 616 pertsona Araban, 1275 Bizkaian eta 964 Gipuzkoan, beraz, 2855 pertsona elkarrizketatu ziren guztira. Gizabanakoen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, 20na inkestaz osaturiko ausazko ibilbideak erabiliz –214 laginketa abiapunturekin<sup>2</sup>—, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratuz. Emaizak hiru lurraldeetako biztanleria zentsuaren eta 2001eko Hauteskunde Autonomikoetako boto errearen arabera haztatu dira.

Ikerketaren diseinua Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak eta Prospekzio Soziologikoen Kabineteak elkarlanean egindakoa da eta emaitzen azterketa eta txostenaren idazketaren ardura berriz Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagokio soilik. Informazio bilketa Askatasunaren hiribidea, 17-19, 2004 Donostia helbidean dagoen *Ikertalde* enpresak egin zuen.

2855 pertsonako lagin honi dagokion **lagin errorearen estimazioa**, erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria,  $\pm 1,87\%$ koa da EAE osorako,  $\%95,5$ eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik.

Inkosten  $\%45,7$ tan telefono bidezko kontrola egin da eta  $\%9,1$  etxean bertan kontrolatu dira. Horrez gain, jasotako galdetegi guztietan kontrol informatiko egokiak egin dira –logika, koherentzia eta heinari buruzkoak-.

---

<sup>2</sup> Hasiera puntu fisiko zehatza ausaz lortu zen hauteskunde sekzio bakoitzeko kale “zati” multzoen artean (azterketarako unitate geografiko txikiena), Eustatek egindako kale izendegien arabera.

## **A - Gaia: Nazioarteko gatazkak**

- Iraken aurkako erasoak
- Espainiaren partehartzea Iraken aurkako erasoan
- Mundua irailaren 11ren ondoren
- AEB eta nazioarteko gatazkak
- Biztanleriaren beldurrak
- Telebista kateekiko konfiantza

## Gaia: Nazioarteko gatazkak Iraken aurkako erasoak

(GUZTIRA ETA TALDEKA)

*Nazioarteko egoerari dagokionez, azkenaldian Estatu Batuek eta beren aliatuek Iraken kontrako erasoak egin dezaketela komentatzen da. Zu Estatu Batuek eta beren aliatuek Irak erasotzearen alde zaude ala ez?*

	EAE ES 02URRIA	EZKER-ESKUIN ARDATZA			
		EZKERREKOA	ZENTROKOA	ESKUINEKOA	Ed/Ee
Bai .....	3	2	4	9	3
Ez .....	88	93	87	81	83
Ed/Ee.....	9	4	9	10	14
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100

## Gaia: Nazioarteko gatazkak Espainiaren partehartzea Iraken aurkako erasoan

(GUZTIRA)

<i>Estatu Batuek eta beren aliatuek Iraken kontrako eraso egitea erabakiko balute, zu alde ala kontra egongo zinateke ondoko egoeretan?</i>	
	<b>EAE</b> <b>ES 02URRIA</b>
<b>GATAZKA HORIENGATIK AFEKTATUA LEGOKEEN JENDEARENTZAT LAGUNTZA HUMANITARIOA GEHITU</b>	
ALDE .....	<b>80</b>
KONTRA .....	<b>14</b>
Ed/EE .....	<b>6</b>
<b>JENDEAREN LIBERTATE BATZUK MURRIZTU TERRORISTEN KONTRA EGITEKO</b>	
ALDE .....	<b>14</b>
KONTRA .....	<b>74</b>
Ed/EE .....	<b>12</b>
<b>KOMUNIKABIDEEK EMATEN DUTEN INFORMAZIOA ZENTSURATU ETA MUGATU</b>	
ALDE .....	<b>8</b>
KONTRA .....	<b>83</b>
Ed/EE .....	<b>9</b>
<b>ESPAINIAKO BASE MILITARRAK ESTATU BATUEN ETA BEREN ALIATUEN ESKURA JARRI</b>	
ALDE .....	<b>5</b>
KONTRA .....	<b>86</b>
Ed/EE .....	<b>9</b>
<b>ESTATU BATUEN ETA BEREN ALIATUEN EJERTZITOEKIN BATERA BORROKATZEKO TROPAK BIDALI</b>	
ALDE .....	<b>5</b>
KONTRA .....	<b>88</b>
Ed/EE .....	<b>8</b>
(EHUNEKO BERTIKALAK) .....	100



## Gaia: Nazioarteko gatazkak Espainiaren partehartzea Iraken aurkako erasoan

(TALDEKA)

<i>Estatu Batuek eta beren aliatuek Iraken kontrako erasoia egitea erabakiko balute, zu alde ala kontra egongo zinateke ondoko egoeretan?</i>								
	EAE ES 02URRIA	LURRALDEA			EZKER-ESKUIN ARDATZA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EZKERREKOA	ZENTROKOA	ESKUINEKOA	ED/EE
<b>GATAZKA HORIENGATIK AFEKTATUA LEGOKEEN JENDEARENTZAT LAGUNTZA HUMANITARIOA GEHITU</b>								
ALDE.....	<b>80</b>	87	77	83	84	77	82	77
KONTRA.....	<b>14</b>	9	16	11	12	17	11	15
Ed/EE.....	<b>6</b>	3	7	6	4	6	7	9
<b>JENDEAREN LIBERTATE BATZUK MURRIZTU TERRORISTEN KONTRA EGITEKO</b>								
ALDE.....	<b>14</b>	24	11	14	10	23	25	12
KONTRA.....	<b>74</b>	66	77	72	81	68	64	70
Ed/EE.....	<b>12</b>	10	12	14	10	9	10	18
<b>KOMUNIKABIDEEK EMATEN DUTEN INFORMAZIOA ZENTSURATU ETA MUGATU</b>								
ALDE.....	<b>8</b>	16	5	11	7	10	17	7
KONTRA.....	<b>83</b>	78	86	80	87	82	75	80
Ed/EE.....	<b>9</b>	6	9	9	6	9	7	13
<b>ESPAINIAKO BASE MILITARRAK ESTATU BATUEN ETA BEREN ALIATUEN ESKURA JARRI</b>								
ALDE.....	<b>5</b>	9	6	3	3	9	13	5
KONTRA.....	<b>86</b>	85	85	88	91	83	78	82
Ed/EE.....	<b>9</b>	6	9	9	6	8	9	13
<b>ESTATU BATUEN ETA BEREN ALIATUEN EJERTZITOEKIN BATERA BORROKATZEKO TROPAK BIDALI</b>								
ALDE.....	<b>5</b>	6	5	2	3	6	10	4
KONTRA.....	<b>88</b>	89	87	89	92	87	83	84
Ed/EE.....	<b>8</b>	5	8	8	5	7	7	12
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100

## Gaia: Nazioarteko gatazkak

### Mundua irailaren 11ren ondoren

(GUZTIRA)

*2001eko irailaren 11n Estatu Batuetan izan ziren atentatuak eta gero, zure ustez, mundu hobean, mundu berdinean ala mundu txarrago batean gaude?*

	EAE ES 02URRIA	ESTATU ESPAINOLA 01 URRIA *
MUNDU HOBEAN.....	2	15
MUNDU BERTINEAN .....	45	46
MUNDU TXARRAGOAN.....	47	21
Ed/EE.....	6	18
(EHUNEKO BERTIKALAK) .....	100	100

- CIS (2001: 4). CISEK ATENTATUEN ONDOREN EGINDAKO GALDERA HONAKOA ZEN: BIZI DUGUN EGOERA AMAITZEN DENEAN MUNDU HOBEAN, BERTINEAN EDO TXARRAGOAN EGONGO GARELA USTE DUZU?

## Gaia: Nazioarteko gatazkak

### Mundua irailaren 11ren ondoren

(TALDEKA)

*2001eko irailaren 11n Estatu Batuetan izan ziren atentatuak eta gero, zure ustez, mundu hobean, mundu berdinean ala mundu txarrago batean gaude?*

	EAE ES 02URRIA	ADIN TALDEAK				UDALERRIAREN TAMAINA		
		18-29	30-45	46-64	>=65	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA
MUNDU HOBEAN .....	2	1	2	2	2	2	1	2
MUNDU BERTINEAN.....	45	49	51	42	38	39	47	47
MUNDU TXARRAGOAN .....	47	44	43	50	51	53	44	45
Ed/EE .....	6	6	4	7	9	6	8	5
(EHUNEKO BERTIKALAK) .....	100	100	100	100	100	100	100	100

## Gaia: Nazioarteko gatazkak AEB eta nazioarteko gatazkak

(GUZTIRA)

*Azkenaldian nazioarteko gatazka ezberdinetan Estatu Batuek parte hartzea eztabaidatzen ari da. Ondoko gauzetan pentsazazu eta esadazu, mesedez, zure ustez Estatu Batuek eragin positiboa ala negatiboa izan duten azken hamar urteotan.*

	EAE	BESTE HERRIALDE BATZUK*						
	ES 02URRIA	ESPAINIA	FRANTZIA	ERRESUMA BATUA	ALEMANIA	ITALIA	PORTUGAL	AEB
<b>EKONOMIA GLOBALEAN</b>								
POSITIBOA.....	7	28	50	52	63	52	43	74
NEGATIBOA.....	67	36	37	30	23	27	25	15
SEGUN ETA / BIAK	8	11	3	6	9	9	11	5
EZ DU ERAGINIK IZAN .....	3	1	0	0	0	1	0	2
Ed/EE .....	15	25	10	11	5	11	20	4
<b>GIZA ESKUBIDEETAN, MUNDU MAILAN</b>								
POSITIBOA.....	5	16	44	48	54	42	41	75
NEGATIBOA.....	71	49	41	29	30	32	26	13
SEGUN ETA / BIAK	6	11	5	10	9	12	13	6
EZ DU ERAGINIK IZAN .....	4	0	1	0	1	1	0	2
Ed/EE .....	14	24	9	12	5	12	20	3
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100

\* CANAL IPSOS (2001: 5)

## Gaia: Nazioarteko gatazkak

### AEB eta nazioarteko gatazkak

(TALDEKA)

*Azkenaldian nazioarteko gatazka ezberdinetan Estatu Batuek parte hartzea eztabaidatzen ari da. Ondoko gauzetan pentsazazu eta esadazu, mesedez, zure ustez Estatu Batuek eragin positiboa ala negatiboa izan duten azken hamar urteotan.*

	EAE ES 02URRIA	IKASKETA MAILA				POLITIKAREKIKO INTERESA				EZKER-ESKUIN ARDATZA				EUSKAL NAZIONALISMOA	
		<LEHEN MAILAKOAK	LEHEN MAILAKOAK	BIHARREN MAILAKOAK	GOIMAILAKOAK	BATERE EZ	HANDIRIK EZ	NOLABAI TEKOA	HANDIA	EZKERREKOA	ZENTROKOA	ESKUINEKOA	Ed/EE	Bai	Ez/Ed/EE
<b>EKONOMIA GLOBALEAN</b>															
POSITIBOA.....	7	11	5	7	7	7	5	8	6	5	9	14	6	5	8
NEGATIBOA.....	67	47	67	70	74	63	69	69	80	76	63	57	60	75	63
SEGUN ETA/BIAK.....	8	8	7	11	8	8	10	9	6	8	8	7	9	6	9
EZ DU ERAGINIK IZAN.....	3	3	4	3	2	4	3	2	1	2	5	2	4	3	3
Ed/EE.....	15	32	16	10	10	19	13	12	7	9	15	20	21	11	17
<b>GIZA ESKUBIDEETAN, MUNDU MAILAN</b>															
POSITIBOA.....	5	7	5	5	4	5	5	4	5	4	7	8	5	4	5
NEGATIBOA.....	71	53	70	75	78	65	72	77	81	81	64	61	63	79	66
SEGUN ETA/BIAK.....	6	7	6	7	5	7	8	5	5	5	8	7	8	4	8
EZ DU ERAGINIK IZAN.....	4	3	4	3	5	5	4	3	3	3	6	6	4	3	4
Ed/EE.....	14	30	14	10	9	19	12	11	5	7	14	19	21	10	16
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

## Gaia: Nazioarteko gatazkak Biztanleriaren beldurrak (GUZTIRA)

<i> Ondoren, jendeak beldurra dien gauza batzuen zerrenda irakurriko dizut. Bakoitzari buruz esadazu, mesedez, zuk beldurra diozun ala ez. </i>			
<i>BELDURRA DIOTENEN %*</i>	<b>EAE</b>	2001 URRIA-AZAROA**	
	<b>ES 02URRIA</b>	EB	ESTATU ESPAINOLA
HONDAMEN MASIBOKO ARMAK (NUKLEARRAK, BAKTERIOLOGIKOAK EDO KIMIKOAK) UGARITZEA .....	<b>79</b>	79	81
DELINKUENTZIA ORGANIZATUA.....	<b>77</b>	79	78
ZENTRAL NUKLEAR BATEAN ISTRIPUA GERTATZEA .....	<b>74</b>	76	80
GERRA MUNDIALA .....	<b>73</b>	64	75
MISIL NUKLEAR BAT USTEKABEAN JAURTITZEA .....	<b>71</b>	65	76
TERRORISMOA .....	<b>69</b>	86	90
ARRAZA GATAZKAK .....	<b>67</b>	66	74
IZURRITEAK.....	<b>64</b>	65	74

\* EHUNEKOEN BATURA EZ DA 100, KASU BAKOITZARI BURUZ GALDETU DELAKO.

\*\* EUROPEAN COMMISSION (2001A: B-16)

## Gaia: Nazioarteko gatazkak Biztanleriaren beldurrak (TALDEKA)

*Ondoren, jendeak beldurra dien gauza batzuen zerrenda irakurriko dizut. Bakoitzari buruz esadazu, mesedez, zuk beldur diozun ala ez*

BELDURRA DIOTENEN %*	EAE ES 02URRIA	SEXUA		ADIN TALDEA				HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA		
		GIZONEZKOA	EMAKUMEZKOA	18-29	30-45	46-64	>=65	BAXUA	ERDIKOA	ALTUA
HONDAMEN MASIBOKO ARMAK (NUKLEARRAK, BAKTERIOLOGIKOAK EDO KIMIKOAK) UGARITZEA .....	<b>79</b>	73	84	71	79	83	82	81	79	73
DELINKUENTZIA ORGANIZATUA .....	<b>77</b>	72	83	65	78	83	84	77	77	81
ZENTRAL NUKLEAR BATEAN ISTRIPUA GERTATZEA .....	<b>74</b>	68	81	69	71	77	82	78	74	61
GERRA MUNDIALA.....	<b>73</b>	66	80	68	70	75	81	77	73	58
MISIL NUKLEAR BAT USTEKABEAN JAURTITZEA.....	<b>71</b>	64	78	64	67	73	80	75	70	58
TERRORISMOA .....	<b>69</b>	61	76	56	68	74	79	70	68	65
ARRAZA GATAZKAK.....	<b>67</b>	60	75	64	67	67	71	68	67	57
IZURRITEAK .....	<b>64</b>	57	71	57	60	68	73	68	63	52

\* EHUNEKOEN BATURA EZ DA 100, KASU BAKOITZARI BURUZ GALDETU DELAKO

## Gaia: Nazioarteko gatazkak

### Telebista kateekiko konfiantza

(GUZTIRA ETA TALDEKA)

*Telebista kate ezberdinen artean, zeinetan duzu konfiantzarik handiena nazioarteko mailan gertatzen denaren berri zehatza jasotzeko?*

	EAE ES 02URRIA	TERRITORIO			EUSKAL HERRIKO-ESPAINIAKO ARDATZA			EZKER-ESKUIN ARDATZA				EUSKAL NAZIONALISMOA	
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GEHIENBAT EUSKAL HERRIKOA	EUSKAL HERRIKOA BEZAIN ESPAINIAKOA	GEHIENBAT ESPAINIAKOA	EZKERREKOA	ZENTROKOA	ESKUINEKOA	Ed/EE	BAI	Ez-Ed/EE
ETB 2 .....	32	25	34	30	46	19	17	39	30	26	23	49	21
TVE 1 .....	16	18	17	14	6	24	33	9	24	29	18	6	22
TELE 5 .....	15	17	15	14	9	23	15	15	16	15	14	7	20
ETB 1 .....	9	4	5	18	19	1	0	12	5	8	7	20	3
ANTENA 3 .....	7	11	7	5	3	9	13	4	8	8	9	3	9
TVE 2 .....	4	6	4	2	2	5	5	4	4	2	3	2	5
CANAL PLUS .....	2	3	1	2	1	2	3	2	3	2	1	2	2
CANALES INTERNACIONALES (BBC, CNN, ...) .....	1	2	1	1	1	1	2	1	1	0	1	1	1
OTRAS .....	2	2	2	2	2	3	1	1	2	3	3	2	2
Ed/EE .....	13	12	14	12	11	14	11	11	7	8	19	9	15
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100



## **B - Jarrera politikoak**

- **Politikarekiko interesa**
- **Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna**
- **Ezker-eskuin ardatza**
- **Euskal Herriko-Espainiako ardatza**
- **Sentimendu nazionalista**
- **Independentismoa**
- **Autonomia Estatutua**
- **Botoemaleen poztasuna**
- **Abstentziorako arrazoiak**
- **Buruzagi politikoaren balorazioa**
- **Indarkeriaren erabilpena**
- **Bide demokratikoen izatea**
- **Instituzioekiko konfiantza**

## Jarrera politikoak

### Politikarekiko interesa

(GUZTIRA)

#### Nolako interesa duzu politikaz?

	EAE ES 1995	EAE ES 1996	EAE ES 1997	EAE ES 1998	EAE ES 1999	EAE ES 2000	EAE ES 2001	EAE ES 02 OTSA	EAE ES 02 MAI	EAE ES 02URRIA
INTERES HANDIA.....	8	8	7	9	9	10	10	8	9	11
NOLABAITEKO INTERESA .....	28	27	21	28	28	23	26	23	25	27
EZ INTERES HANDIRIK .....	26	23	20	24	24	20	24	24	20	21
BATERE INTERESIK EZ .....	38	42	50	39	38	47	39	44	45	40
Ed/EE .....	0	0	1	1	1	1	1	1	1	1
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
POLITIKAREKIKO INTERES MAILA * .....	36	35	28	37	37	33	36	31	34	38

\* POLITIKAREKIKO INTERES MAILA: INTERES HANDIA+NOLABAITEKO INTERESA

## Jarrera politikoak

### Politikarekiko interesa

(TALDEKA)

<i>Nolako interesa duzu politikaz?</i>																	
	EAE ES 02URRIA	IKASKETA MAILA				HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA			EUSKAL HERRIKO-ESPAINIAKO ARDATZA			EZKER-ESKUIN ARDATZA				EUSKAL NAZIONALISMOA	
